

## 2. UGALKETA

1. Adierazi gizonezkoen edo emakumezkoen ugaltze aparatuen zein atali dagokion esaldi bakoitza:

- a. Testosterona sintetizatzen du.
- b. Espermatozoideak emakumezkoen baginaren barrura sartzen ditu.
- c. Obuluak sortzen ditu.
- d. Espermatozoideak elikatzeko jariagaia jariatzen du.
- e. Glandea babesten du.
- f. Luzeak dira eta epididimo bakoitza eta uretra lotzen dituzte.
- g. Izaki berria barnean hartzen duen egitura.
- h. Espermatozoideak heltzen dira bertan.
- i. Obulutegia eta umetokia lotzen dituzten hodiak.
- j. Espermatozoideak babesten dituen substantzia jariatzen du.
- k. Organo kopulatzailea, erditzean fetua kanpora ateratzeko bidea.

2. Osatu taula hau:

| EGITURAK                 | GIZONA | EMAKUMEA |
|--------------------------|--------|----------|
| GAMETOAK                 |        |          |
| GONADAK                  |        |          |
| UGALTZE-BIDEAK           |        |          |
| ORGANO<br>KOPULATZAILEAK |        |          |
| GURUIN ERANTSIK          |        |          |

### 3. Lotu espermatogenesiaren fasearen izenak prozesuarekin

|                  |                                                                        |
|------------------|------------------------------------------------------------------------|
| ESPERMATOGENESIA | - Espermatozitoak zatitu eta <b>espermatidak</b> sortzen dira.         |
| UGARITZEA        | - Espermatozoideak sortzeko prozesua da.                               |
| HAZKUNTZA        | - Espermatidak formaz aldatu eta <b>espermatozoideen</b> itxura hartu. |
| HELTZEA          | - Tubulu seminiferoetan <b>espermato gonioak</b> sortzen dira.         |
| BEREIZKETA       | - Espermatogonioak hazi eta <b>espermatozito</b> bihurtu.              |

### 4. Ordenatu obuluen sorreraren faseak

|                                                                                                                                    |    |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| OBOGENESIA: obulutegian obuluak sortzeko prozesua da.                                                                              | 1. |
| OBULAZIOA: Folikulu heldua apurtu, obulua askatu eta obulutegitik irten.                                                           | 2. |
| GORPUTZ HORI EDO LUTEOA: ernalketarik EZ badago, degeneratu. Ernalketa BAI, hazi eta haurdunaldia kontrolatzen duen hormona sortu. | 3. |
| FOLIKULU HELDUA: handia da eta folikulu sekundarioa du barnean.                                                                    | 4. |
| FOLIKULU PRIMARIOA: oso txikia eta heldugabea, obozito primarioa du barnean.                                                       | 5. |